

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ERMUKO UDALAREN 2018-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu du Ermuko Udalaren, Ermuko IMD eta Udal Euskaltegia Fundazio Publikoaren eta Ermuko Udal Sustapena SA (PROMOSA) bere sozietate publikoaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2018ko ekitaldikoa. Txostenari Osoko bilkurako kontseilari batek boto partikularra jarri dio.

2018ko **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz Udalaren Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina 70 mila euroan gehitzen duten zenbait doiketa azaleratu diren. Ezin izan da, baina, Udalaren eta erakunde autonomoen Balantzeko Ibilgetu ez finantzarioaren eta amortizazio metatuko saldoen gaineko ondorioz eskuratu.

Udalak fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorrak erakusten duen **finantza egoera** aztertu du eta ondorioztatu du Udalak **egoera ekonomiko osasuntsua** duela eta behar hainbateko baliabideak dituela ohiko jarduerari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei zorpetu beharrik izan gabe aurre egiteko.

Halaber, txostenak ondorioztatu du Udalaren kontu-hartzaitzak egindako txostenaren arabera, 2018an **aurrekontuaren egonkortasun, zor publiko eta gastuaren araua bete dela.**

Bai Udalak bai Ermuko Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten gainerako erakundeek zuzentasunez bete dute 2018ko ekitaldian beren jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duen lege-araudia, baina unean uneko salbuespenak azaleratu dira Langileen eta Kontratazioaren arloetan; langileen arloan: pentsioen sistema osagarria; eta Kontratazioaren arloan: lizitazio batean aurkeztutako lizitatzailerak bakarrik ez da baztertu, nahiz eta baldintza-agiriekin bat etorri ez, eta prozedurarik ez dago Udalak eta PROMOSAK gauzatutako hiru zerbitzu eta hornikuntzako bi kontraturen esleipenean eta Udalak esleitutako bi kontratu mugaeguna gaindituta luzatu dira.